

**Euskal Herriak
behar duen
hezkuntzaren alde**



**Hezkuntzaren
erabilera partidistarik ez!**
ELA-LAB-STEE/EILAS

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak berriki argitaratu du bere Hezkuntza curriculum dekretu berria. Honi lotuta, hezkuntzari gogor eragiten dioten erabakiak eman ditu ezagutzera. Esanguratsuenak hizkuntza ereduak eta bereziki euskararen ingurukoa, Euskal Herria ulertzeko moduari dagokiona eta biktima batzuk soilik ikasgeletan izateari buruzkoa. Hezkuntzan gehiengo sindikal zabala osatzen dugun ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuok gure erabateko desadostasuna eta kezka sakona agertzen dugu Jaurlaritzaren jokabide eta erabaki hauen edukiengatik.

Lehenik eta behin, kasu hauetan guztietan Jaurlaritzaren prozedura salatu beharrean gaude. Eragile ezberdinen parte hartzea bilatu, iradokizun eta gomendioak jaso eta adostasuna bilatzen saiatu dela dioten arren, herri honetan eta hezkuntzan gehiengo osatzen dugun sindikatuok eta beste hainbat eragilerekin ez du harremanik izan eta ez du inongo ahaleginik egin eragile ezberdinekin adostasuna bilatzeko. Erabaki hauek guztiak hezkuntza munduari ezarritako inposizio hutsak izan dira.

Edukiei dagokienez, kezka berezia agertzen dugu dekretu honekin eta Jaurlaritza hartzen ari den erabakiekin euskarak eta euskarazko irakaskuntzak sufrituko duen egoeraz, Euskal Herriaren errealitate historiko, kultural, soziala eta herri izaera indargabetzeko asmoaz eta pairatzen dugun egoera politikoa eta sufrimenduaren inguruan egin nahi den erabilera politikoa. Gure ustez, neurri berri hauen guztien atzean PSE eta PPren arteko hitzarmenaren proiektu ideologikoa ezkututzen da. Horri jarraiki, gobernu hau euskara, euskal kultura eta Euskal Herriaren naziotasuna lausotzen ahalegintzen ari da eta gatazka politikoa eta honen biktimak helburu partidistekin erabiltzen.

Benetan salagarria iruditzen zaigu eta asko kezkatzen gaituzte curriculum dekretua oinarri hartuta Jaurlaritza euskararen inguruan hartzen ari den erabakiek eta hauek aurrera eramanez gero euskarak eta euskarazko irakaskuntzak sufrituko duen egoerak. Herri honek eta hezkuntza sistemak duten oinarritzko beharra ez dugu uste, Sailburuak berriki esan duen moduan, euskararen eta gaztelaniaren arteko berdintasun normatiboa denik, bi hizkuntzen eta bereziki euskararen ezagutza eta erabilera bermatuko duen hezkuntza baizik. Eta bide honetan, Jaurlaritzaren urratsak guztiz kontrako norabidean doaz. Halako egoera diglosikoetan jarraitu beharreko irizpide pedagogiko eta psikolinguistikoei bizkar emanda, euskarari ez zaio ardatz izateko lehentasunezko izaerarik aitortzen. Hitzetan euskara eta euskarazko irakaskuntzari nolabaiteko aitormen bat egiten bazaio ere, ekintzek guztiz kontrakoa diote, ez baitira konpromiso zehatzak hartzen derrigorrezko eskolaldia amaitzean ikasleek izan beharreko ezagutza mailaz. Horrela, besteak beste, ingeleraren ezagutza bultzatzeko aitzakiarekin, gaztelania indartu eta euskararen presentzia eta ezagutza murriztu eta kolokan jartzen duen hiru eleko hezkuntza proposamena ezarri nahi dute, ikasle euskaldun eleanitzak lortzeko xedea galaraziz. Era berean, irakasleak euskalduntzeko programan, IRALEn, egin dituen murrizketa garrantzitsuak, aurrematrikulak egiterakoan A ereduaren inguruan eztabaida berpizteko ahalegina edo administrazio eskakizunetan euskararen garrantzia gubxitzeko asmoa horren adierazle dira. UPN eta PSN paktuaren ondorioz, antzeko asmo eta erabakiak badakigu zein ondorio izaten ari diren Nafarroan.

Nafarroako ereduari jarraiki, Eusko Jaurlaritzak, hezkuntza “eduki ideologiko partidistetatik” aldentzeko aitzakiarekin Euskal Herria, hizkuntza eta kultura eremu batzuetara mugatzen duenean, PSE eta PPK Euskal Autonomia Erkidegoan adosturiko gobernu programa uzten dute berriro ere agerian, Herri hau eta Espainia ulertzeko duten modua eta beraien proiektu ideologikoa inposatzeko asmoa. Horretarako gainera, herri honen gehiengoaren borondatea alde batera utzi eta mesprextatuz “pluraltasuna, kohesioa eta berdintasunaren” izenean. Ezin dugu onartu gehiengoaren nahia alde batera uzten duen pluraltasun eta berdintasuna.

Helburu horretan uztartzen da guztiz eta horren adierazle garbia da Jaurlaritzak ezarri nahi duen –eta, gure ustez, onartezina den– Plana eskoletan terrorismoaren biktimen gaia lantzeko, aldebakarreko samina aintzat hartuz soilik. Pairatzen dugun sufrimenduaren erabilera politikoa partidista eskoletara zabalduta nahi da. Hori bizikidetzat lantzea baino, liskarrerako eta manipulaziorako bidea irekitzea da. Ikuspegi partziala eta murrizta izateaz gain, xede politikoa argia du, inolako helburu hezitzaile gabe, eta zalantzan ipintzen du orain arte eskoletan irakasleek izan duten giza- eskubideak eta bizikidetzat lantzeko modua. Komeni da argi esatea eta azpimarratzea Euskal Herriko eskoletan irakasleek jada lantzen dituztela giza eskubideak eta bizikidetzarako jarrerak.

Hau honela, gure ustez arlo honetan ikasgeletan bestelako lan bereziago bat egitea ezin daiteke hala nola harturiko erabakia izan, are gutxiago interes partikular batzuei begira. Gai honetan ezinbestekoak dira hausnarketa askoz zabalagoa eta egitasmo honetan inondik ere agertzen ez diren irizpide pedagogikoak. Biktima guztiekiko –batzuekiko bakarrik, ez– elkartasuna lantzearen azken asmoa sufritzen ari den gizarte oso baten eta elkarbizitzaren adiskidetzat eta berradiskidetzat izan beharko luke, horretarako sufrimenduaren arrazoi eta iturriak gainditu eta guztion artean zauriak sendatzen saiatuz.

Gure ustez, Jaurlaritzaren curriculum dekretu berriaren atzean PSE-PP paktuaren proiektu ideologikoa, Euskal Herria eta euskararen lausotzea, biktimen erabilera politikoa eta Espainiaren uniformatzea ezkututzen dira.

Amaitzeko, Euskal Herriko eta hezkuntzako gehiengo sindikal honek, jendarte osoari, kultura munduari, euskalgintzan diharduten guztiei, Giza Eskubide guztien defentsan dabilzanezi eta, modu berezian, hezkuntza elkarte osoari, eraso hauen inguruko hausnarketara eta egoki deritzoten erantzuna ematera dei egiten diegu.

Honi lotuta, hezkuntza prozesuaren helburu eta protagonista nagusi diren ikasle, irakasle, guraso eta oro har hezkuntzako langileei gure babesa eta indarra eman nahi diegu eraso hauek saihestu ditzaten eta euskara eta herri honek behar duen hezkuntza aurrera eramanez eta sendotzen jarrai dezaten. Hezkuntza munduko langileen gehiengo zabala ordezkatu eta pauso hau eman dugun hiru sindikatuok bide horretan erabateko babesa eskaintzeko eta jasaten ari garen erasoaren pareko erantzuna bideratzeko ahalegina egiteko konpromisoa hartzen dugu.

Euskal Herrian, 2010eko apirilaren 27an

**Euskal Herriak
behar duen
hezkuntzaren alde**



**Hezkuntzaren
erabilera partidistarik ez!**
ELA-LAB-STEE/EILAS

El Departamento de Educación del Gobierno Vasco ha publicado en fechas recientes el nuevo decreto del currículum. Asimismo, ha dado a conocer otras iniciativas que afectan gravemente al sector educativo. Entre éstas destacan las referidas a los modelos lingüísticos y, específicamente, al euskara; al carácter y uso del término Euskal Herria; y a la presencia sólo de algunas víctimas en las aulas. Las organizaciones sindicales ELA, LAB y STEE-EILAS, representantes de una amplísima mayoría sindical en el sector educativo, manifestamos nuestro total desacuerdo y la preocupación más profunda ante la actitud del Gobierno Vasco en estos temas y por el contenido de estas iniciativas.

En primer lugar, debemos denunciar el procedimiento utilizado por el Gobierno Vasco en todos estos casos. Cuando afirma haber fomentado la participación de los diversos agentes educativos, escuchando sus opiniones y sugerencias, para así lograr un consenso mínimo en estas materias, nos vemos obligados a salir al paso y señalar que, antes al contrario, no ha mantenido relación con las organizaciones firmantes de esta declaración – que, recuérdese, conformamos una clara mayoría en el conjunto del país y en el propio ámbito educativo–, ni ha realizado esfuerzo alguno para lograr ningún tipo de acuerdo con el conjunto de agentes educativos. Todas estas iniciativas que se ponen en marcha o se pretenden poner en marcha en el sector educativo se plantean, pues, desde la imposición.

Respecto al contenido del nuevo decreto del currículum, manifestamos nuestra especial preocupación ante la situación en la que queda el euskara y la enseñanza en euskara, ante el intento de anular nuestra personalidad y la realidad histórica, cultural y social de Euskal Herria y ante la utilización que se pretende realizar de la situación política y del sufrimiento que padecemos. En nuestra opinión, tras todas estas iniciativas se esconde el proyecto ideológico del pacto suscrito entre el PSE y el PP. En línea con ese proyecto, este gobierno está tratando de difuminar el euskara, la cultura vasca y el carácter nacional de Euskal Herria y está utilizando el conflicto político y sus víctimas con objetivos partidistas.

Ciertamente, nos parecen denunciabiles las decisiones que, tomando como base el nuevo decreto del currículum, está adoptando el gobierno en torno al euskara y nos preocupa, caso de llevarse a cabo las mismas, la situación a la que se puede abocar a la enseñanza en euskara. A pesar de lo manifestado por la Consejera, no creemos que este país y su sistema educativo necesiten la igualdad normativa del euskara y el castellano, sino una educación que garantice el conocimiento y uso de los dos idiomas, en especial los de aquél que en la actualidad no está garantizado: el euskara. En esta materia, las iniciativas adoptadas por el gobierno caminan justo en sentido contrario. Dando la espalda a los criterios pedagógicos y psicolingüísticos que deben ser aplicados en este tipo de situaciones diglósicas, no se reconoce al euskara el carácter preferencial que debe tener para convertirse en eje del ámbito educativo. Aunque de palabra se realiza un cierto reconocimiento del euskara y de la enseñanza en euskara, los hechos indican todo lo contrario, pues no se adoptan medidas para garantizar a todo el alumnado al término de su etapa obligatoria de escolarización un nivel de conocimiento y uso del euskara suficientes. De esta forma, con el pretexto de impulsar el conocimiento del Inglés, se pretende instaurar un marco trilingüe de enseñanza que, además de fortalecer el castellano, debilita la presencia y pone en cuestión el conocimiento del euskara. El objetivo de conseguir alumnas y alumnos euskaldunes multilingües se torna así imposible. Son también ejemplos de esa orientación del Departamento, los drásticos recortes que se han producido en el programa de euskaldunización del profesorado, IRALE, el intento de reavivar la polémica en torno al modelo A en plena campaña de matriculación o la intención de rebajar el nivel de euskara requerido en el acceso al empleo público. Por desgracia, conocemos bien las

consecuencias que está teniendo la adopción de medidas y decisiones similares en Nafarroa como consecuencia del pacto entre UPN y PSN.

Cuando el Gobierno Vasco, siguiendo el modelo navarro, limita –con el pretexto de no dar pábulo a “contenidos ideológico-partidistas”– el concepto Euskal Herria a ciertos ámbitos culturales y lingüísticos, se nos aparecen claramente el programa de gobierno que han acordado para la CAPV el PSE y el PP, el modo en que conciben este pueblo y el modo en que conciben España, y la voluntad de imponer su proyecto ideológico. Además, con ese objetivo y en nombre de “la pluralidad, la cohesión y la igualdad”, desestiman y desprecian la voluntad de la mayoría de este pueblo. No podemos aceptar una pluralidad e igualdad que no toma en consideración la voluntad de la mayoría.

A ese objetivo general obedece también el Plan –en nuestra opinión, inadmisibile– que quiere implantar el gobierno para tratar el tema de las víctimas del terrorismo en las escuelas, tomando en cuenta sólo el dolor de una parte. Se quiere llevar a la escuela la utilización político-partidista del sufrimiento que padecemos. En vez de profundizar en la convivencia, lo que se plantea va a abrir las puertas de la escuela al conflicto y a la manipulación. Este plan, además de un enfoque parcial y restrictivo, tiene un propósito político claro, carece de objetivos pedagógicos y cuestiona el trabajo realizado hasta la fecha por el profesorado en materia de derechos humanos y convivencia. Porque en este punto conviene dejar una cosa clara: el profesorado en los centros educativos de Euskal Herria está trabajando y fomentando ya los derechos humanos y los valores para la convivencia.

Teniendo en cuenta lo expuesto, en nuestra opinión la decisión de realizar en torno a esta materia otro tipo de actividad específica en las aulas no puede ser adoptada a la ligera, y mucho menos con la vista puesta en algunos intereses particulares. En esta cuestión son imprescindibles una reflexión mucho más amplia y unos criterios pedagógicos que en esta propuesta brillan por su ausencia. El objetivo último de fomentar la solidaridad con todas las víctimas –no sólo con algunas– debería ser la reconstrucción de la convivencia y la reconciliación de toda una sociedad que sufre, superando las razones y orígenes del sufrimiento e intentando entre todas y todos curar las heridas abiertas.

En nuestra opinión, tras el nuevo decreto de currículum del gobierno Vasco, se esconden el proyecto ideológico del pacto PSE-PP, el intento de difuminar el euskara y Euskal Herria, la utilización política de las víctimas y la uniformización de España.

Para terminar, esta mayoría sindical llama a toda la sociedad, al mundo de la cultura, a quienes trabajan en el ámbito del euskara, a quienes están comprometidos en la defensa de todos los Derechos Humanos y, de modo especial, a toda la comunidad educativa a que realicen una reflexión sobre estos ataques y a articular las respuestas que consideren oportunas.

Además, queremos hacer llegar a quienes son protagonistas directos del proceso educativo –alumnado, profesorado, padres y madres, trabajadoras y trabajadores de la enseñanza– nuestra cobertura y ánimo para adoptar medidas que permitan sortear estos ataques y para que continúen trabajando y consolidando el euskara y la educación que necesita este pueblo. Las tres organizaciones sindicales que representamos a una amplia mayoría de trabajadoras y trabajadores de la enseñanza y que hemos dado este paso nos comprometemos a ofrecer en este itinerario toda la cobertura a nuestro alcance y a realizar el esfuerzo necesario para vertebrar en adelante una respuesta acorde a los ataques que venimos sufriendo.